

2023KO GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA LAGUNTZA HUMANITARIOAKO EGITASMOEN DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

ZIOEN AZALPENA

Getxoko txirotutako herrialdeekiko elkartasunaren konpromisoa erakutsiz, 1992tik darama aurrekontuko partida bat lankidetzak egitasmoak finantzatzera xedatzen eta, horretarako, gaian adituak diren nazioarteko eta estatuko erakunde desberdinetatik Herri Administrazioei egiten dizkieten gomendioei segitzen die.

Garapenerako lankidetzak, herrien arteko elkartasunaren adierazgarri, herrialderik behartsuenei lagundu nahi die, garapenaren bidean etengabe eta ingurune ekologikoarekin harmonian aurrera egin dezaten. Gure lankidetzak egitarauan gero eta erakunde gehiagok parte hartzen dutenez, eta gero eta diru gehiago eskatzen zaigunez, garbi dago hasitako politikarekin segitu beharra dagoela, komunitaterik txiroenen beharrei erantzuteko. Horregatik atera da deialdi hau, hain zuzen, lankidetzarako, gizarteak sentsibilizatzeko eta ekintza humanitarioko zer-nolako ekintzak finantzatu ahalko diren argitzeko, eta erakunde eskatzaileek zer baldintza bete behar duten eta laguntzak zelan eta zer irizpideren arabera emango diren zehazteko.

2015ean Nazio Batuek 2030 Agenda onartu zuen Garapen Iraunkorraren inguruan, aukera ezin hobea herrialdeek eta berain gizarteek guztion bizitza hobetzeko inori atzean utzi gabe. Agendak 17 Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) ditu, berain barne txirotasuna ezabatzeko, klima aldaketari aurre egitea, hezkuntza, emakumeen berdintasuna, ingurugiroaren defentsa edo eta gure hirien diseinua dauelarik. Agenda berriak dakarren berritasuna da ez dela bakarrik herri txirotuetan gauzatu behar, baizik eta, munduko herrialde guztietan gauzatu behar dela.

Beraz, GIHak Garapen Lankidetzarako ezinbesteko erreferentzia dira, eta hori dela eta, diru laguntza deialdi honen ezinbesteko testuingurua.

Horregatik diru-laguntza deialdi honetan zehazten dira garapen lankidetzarako ekintzak, gizarte sentsibilizaziorako, garapenerako hezkuntzarako eta ekintza humanitarioko ekintzak, eta, erakunde eskatzaileen betekizunak, prozedura eta laguntzak emateko irizpideak.

Laguntzak erakundearen helburu nagusia garapenerako lankidetzak duten pertsona juridikoen bidez emango dira, hala nola, GGKEen, kongregazio erlijiosoen, fundazioen eta antzekoen bidez.

Deialdi honetan araututako laguntzak **351.750** eurokoak dira, 2023ko aurrekontuaren 00200.23140.4810000 partidakoa, eta honelaxe xehatuta daude:

- I. Goiburua. Herri txirotuetan garapena sustatzeko ekintzak, irabazi asmorik gabeko erakundeen bitartez: **336.000** euro
- II. Goiburua.
 - A) Ekintza humanitarioko eta uneko egitasmoak, irabazi asmorik gabeko erakundeak egiteko direnak: **12.600** euro.
 - B) Adingabeen harrerak, irabazi gabeko erakundeak egiteko direnak: **3.150** euro.

Horregatik, Lankidetzak Arloko zinegotziak proposatuta, eta Getxoko udaleko Tokiko Gobernu Batzako bileran eztabaidatu ondoren,

HAUXE XEDATU DUT:

I. TITULUA

LAGUNTZAK GARAPENEAN LAGUNTZEKO EGITASMOEI, IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEENTZAT.

1. artikulua.- Xedea

Titulu honen xedea 2023ko laguntzak arautzea da, garapenerako lankidetzaren helburu ekintzak sustatzen duten pertsona juridikoen bidez, hau da, GGKE, kongregazio erlijioso, fundazio eta antzekoen bidez, herri txirotuekiko gizartearen eta ekonomiaren alorretan lankidetzaren egitasmoak burutzeko.

2. artikulua.- Erakunde eskatzaileak

2.1. Goiburu honetan jasotako onurei heldu ahalko diete ondoko baldintzak betetzen dituzten pertsona juridikoek:

- a) Herri txirotuetan giza garapena sustatzeko egitasmoak bideratu nahi dituen eta behar bezala inskribatuta dagoen edozein pertsona juridikok.
- b) Nortasun juridikorik duten erakundeak, Bizkaiko Lurralde Historikoan erakundearen egoitza zein ordezkariak egonkorra edukiko dute.
- c) Udalaren aurrekontuaren bitartez diru-laguntza nominatiborik ez duen elkarteak titulu honen esparruaren barruan.
- d) Getxoko Udalarengandik lehenago jasotako laguntzaren bat justifikatzeko dokumentuak ez dute udalaren laguntzarik jasoko.
- e) Ez dute, halaber, dirulaguntzarik jasoko zerga betebeharraren egunean ez dauden, edo Gizarte Segurantzarekin zorretan daudenek.
- f) Irabazi asmorik gabek izan behar dute.

2.2. Dirulaguntzari eutsi ahalko diote, halaber, aurreko baldintza guztiak betetzen dituen erakundeek; eta partzuergo burua Getxon egoitza edo delegazioa duenean eta behintzat bi urteko antzinakotasuna, gainontzeko partaideak egoitza edo delegazioa eduki beharko dute Bizkaiko Lurralde Historikoan.

Multzoan bildutako erakundeek egitasmoaren baterako erantzukizuna hartzen dute beren gain, bai espedientearen administraziozko jakinarazpenen ondoretarako, bai Administrazioaren aurreko solaskide izateko ondoretarako. Erakunde bakoitzaren egitasmo partaidetzaren portzentajea, eta bakoitzaren eskubide eta betebeharrak, dagokien eskaria aurkezten dutenean zehaztuko da. Itun horretan espresuki adieraziko da erakunde bakoitzak egitasmo osoan duen partaidetza portzentajearen ondoriozko erantzukizun zuzena eta erantzukizun subsidiarioa bere gain hartzen dituela.

2.3. Herri Administrazioaren eta aurrezki erakundearen mendeko erakunde eta zerbitzuen egitasmoek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

3. artikulua.—Diruz lagun daitezkeen egitasmoak

Diruz lagungarriak izango dira herri txirotueetako kolektibo edo eremurik behartsuenetako premiak asetzerantz xedatzen direnak; herrialde horiek OCDEren Garapenerako Laguntzako Batzordearen Laguntza Hartzaileren Zerrendan daudenak dira. Jarduera sektoreen artean, ondokoak bultzatzen dituzten ekintzak izango dira:

- a) Bizimodu duineko baldintzak lortzea.
- b) Giza eskubideak defendatu, sustatu eta zabaltzea.
- c) Genero berdintasuna sustatzea.
- d) Indigenen kultur eta hizkuntz berezitasunak defendatzea, baita orain jasaten ari diren bazterketa gaitzera, eta beren auto-garapena bultzatzen duten ekintzak sustatzea.
- e) Produkzio garatzeko egitasmoak.
- f) Prestakuntza eta laguntza teknikoko egitasmoak.
- g) Tokian tokiko antolakuntza eta gizarte ehundura sendotzea.
- h) Garapen demokratikoa, herritarren partaidetza bultzatuko duen Tokiko Garapenaren osozko ikuspegiarekin.

4. artikulua.—Egitasmoen baldintzak

4.1. Aurkeztutako egitasmoek honako baldintza hauek beteko dituzte:

- a) Herri txirotuetan tokiko bazkide baten bidez egitea. Tokiko bazkide hori nortasun juridikoa duen erakundea izango da, irabazi asmorik gabe, behar bezala eratu eta dagokion erregistroan formalki inskribatutakoa. Tokiko bazkidea erakunde bakarra izan daiteke, edo erakunde bi edo gehiago batuta daudenekoa. Kasu honetan, multzoko erakunde bakoitzak aurreko leerroaldeko baldintzak beteko ditu.
- b) Egitasmoaren onuradun diren herritarrek egitasmoaren fase desberdinetan parte har dezaten sustatu eta erraztea.
- c) Ez daitezten baztertzailak izan, arraza, sexu, erlijio edo iritziengatik.
- d) Gastuaren aurrekontu osoa ez izatea 10.000 euro baino txikiagoa, ezta 120.000 euro baino handiagoa.
- e) %20an gutxienez erakunde eskatzailearengandik, tokiko erakundearengandik/onduradunarengandik, edo bestelako finantzaketa iturri publiko zein pribatuetatik datozen baliabideekin ere finantzatzea. GGKE eskatzailearen zein tartean sartuta dauden erakundeek ekarpen baloratuak ere onartuko dira, frogagirien bidez ondo justifikatzen badira.
- f) Egitasmo egingarri eta iraunkorak izatea.
- g) Erabilitako baliabideen, egin beharreko ekintzen eta horiekin lortu nahi diren emaitzen artean dagoen lotura zentzuzkoa azaltzea.
- h) Egitasmoaren aurrekontu xehatua eta egin beharreko gastuen programaketa sartzea.
- i) Ez da 2023 urte baino lehenagoko urteetan egindako gasturik finantzatu.
- j) Dirulaguntza erakunde eskatzaileari ematen zaion datatik gehienez hurrengo hiru hilabeteetan hasia.
- k) Proposatutako jarduketak gehienez hamabi hilabeteko epean burutuko dira.

4.2. Erakunde eskatzaileek zehaztuko dute deialdira aurkeztu dituzten ekintzengatik beste erakunde batzuei dirulaguntzarik eskatu dieten, edo eman dieten; hala bada, horien zerrenda aurkeztuko dute, zenbatekoa eta xedea adieraziz.

4.3. Garapen egitasmo bakoitzak –onesten bada- Getxon sentsibilizatzeke ekintzak jasoko ditu, “Getxotik Mundura Mundutik Getxora” esparruan egiten diren topaketetan, edo udalak halako ondoreetarako egoki irizten dien beste esparru batzuetan, beste esparru batzuetan ere aurkezteko aukera ukatu barik. Elkaratek edo pertsona fisikoak ez badu parte hartzen udalak ezarritako esparruan, honek beren kontra emandako diru-laguntzaren %15eko itzularaztea ekarriko du.

5. artikulua.- Diruz lagun daitezkeen gastuak

5.1. Ondokoetako koste zuzenak diruz lagungarriak izan ahalko dira:

- a) Lurzoru edo eraikinen erosketa. Gauza berezi modura egindako erosketak izango dira eta, nolahi ere, frogatu beharko da instantzia publiko edo komunitario batentzat erosiko direla.
- b) Eraikuntza eta azpiegituren eraikuntza edo birgaitzea.
- c) Ekipo eta materialen erosketa eta garraioa.
- d) Tokiko langileen kosteak.
- e) Hara joandako langileen kosteak, Kooperantearen Estatutuak xedatutakoaren arabera, ez du diru-laguntzaren %10eko muga gaindituko.
- f) Tokiko giza baliabideak gaitu eta trebatzearen kosteak.
- g) Egitasmoak funtzionatzeko kosteak, material agorgarriak eta egitasmoa garatzeko beharrezkoak diren beste horniketa batzuk erostekoak, eskatutako dirulaguntzaren %15eko mugarekin.
- h) Birakako funtsa, hau da, pertsona onuradunei maileguak emateko erabilitako zenbatekoa. Kasu honetan, aurreikusten diren itzulketen zenbatekoa eta xedea zehaztu behar dira.

5.2. Diruz lagungarriak izango dira zeharkako kosteak, egitasmoari identifikatu, formulatu, jarraipena eta ebaluazioa egiteko zuzenean lotutako administrazio eta kudeaketa gastuak. Zeharkako kosteen portzentajea eskatutako laguntzaren %5ekoa izango da, gehienez.

6. artikulua.- Diru-laguntza esleitzeko irizpideak

6.1. Diru-laguntza hauek norgehiagokaren araubideari lotuta esleituko dira.

Hau da norgehiagoka: aurkezten diren eskabideak erkatzen dira hurrengo puntuan ezarritakoaren irizpideen arabera beraien arteko lehentasun hurrenkera ezartzen da, eta gero horri jarraituz esleitzen dira diru-laguntzak. Hau da, puntu gehien lortu dutenetik hasi eta beheraka, aurrekontuan baliagarri dagoen zenbatekoa kontuan hartuta eta deialdian finkatutako mugekin. Beraz, proposamenak puntuazio hurrenkerearen arabera jasoko dute diru-laguntza, aurrekontuko mugak eta baliagarri dagoen diru kopurua kontuan hartuta.

6.2. Getxoko udalak erabakiko du zein egitasmo onetsi, eta dirulaguntzak emateko ondoko irizpide eta balorazio mugak hartuko ditu kontuan (gehienez 100 punturaino). Gutxienez 50 puntu ateratzen ez dituzten egitasmoak ez dira diruz lagungarriak izango.

1. Kalitate teknikoa (25 punturaino)

1.1. Proiektuaren inguruko informazioa (4 punturaino).

1.2. Populazio onuradunen datuak sexua eta adinaren arabera bananduta (2 puntu)

1.3. Koherentzia justifikazioaren, helburuen eta jardueren artean (5 punturaino)

- 1.4. Adierazleak zehaztea (4 punturaino).
- 1.5. Bideragarritasun teknikoa (5 punturaino).
- 1.6. Proiektuaren iraunkortasun orokorra (5 punturaino)
- 2. Inplikaturako alderdien gaitasuna (16 punturaino)**
 - 2.1. Tokiko erakundearen esperientzia eta gaitasuna (2 punturaino)
 - 2.2. Proiektua partzuergoan aurkezten badute erakundeek (2 punturaino)
 - 2.3. Getxo Udalak diru lagundutako ekintzen jarraipena (2 punturaino)
 - 2.4. Xede den populazioaren parte hartzea (2 punturaino)
 - 2.5. Tokiko erakunde adierazgarri baten edo gaiaren araberako erakunde arduradun baten partaidetza edo abala (2 punturaino)
 - 2.6. Erakunde publikoen babesera proiektua bukatuta dagoenetik (2 punturaino)
 - 2.7. GGKEren eta tokiko elkartearen komunean aritutako eskarmentua (2 punturaino)
 - 2.8. Eskatzailearen jarraipenerako gaitasuna (2 punturaino)
- 3. Aurrekontua (13 punturaino)**
 - 3.1. Oinarrietako baldintzei egokitzea (4 punturaino).
 - 3.2. Planteatutako jardueri egokitzea (2 punturaino).
 - 3.3. Egitasmoaren finantzazko bideragarritasuna: kontuen banaketa, proformako fakturen atxikipena (6 punturaino).
 - 3.4. Diru kopuruaren, emaitzen eta xedea den populazioaren kopuruaren arteko erlazioa (puntu 1).
- 4. Genero ikuspegiaren txertapena (8 punturaino)**
 - 4.1. Erabilitako metodologia emakumearen partehartzea proiektuaren etapa guztietan sustatzeko (1 punturaino).
 - 4.2. Emakumeen behar praktikoak hobetzen dituzten ekintzak (2 punturaino)
 - 4.3. Proiektuak emakumearen behar estrategikoak lortzeko laguntzen du (3 punturaino).
 - 4.4. Genero Garapen Indizearen arabera (2 punturaino).
 - Genero Garapen Indizea 0,900 baino txikiagoa bada (2 puntu).
 - Genero Garapen Indizea 0,900 eta 0,925 bitartean badago (1 puntu).
- 5. Egitasmoaren gizarte helburuak (17 punturaino)**
 - 5.1. Bereziki ahulak diren sektoreen bizi baldintzak hobetzea (4 punturaino).
 - 5.2. Getxon bizi diren etorkinen gehiengo taldeen sorterrietako eremu edo eskualdeetan garatzea (1 punturaino)
 - 5.3. Prestakuntza profesionala (2 punturaino).
 - 5.4. Oinarriko antolakuntza sustatzea (2 punturaino).
 - 5.5. Giza Eskubideak sustatzea (2 punturaino).
 - 5.6. Komunitatearen kultura eta balio etikoak sustatzea (2 punturaino).
 - 5.7. Jarduerak ingurumenera egokitzea (2 punturaino).
 - 5.8. Bidezko merkataritzako produktuen ekoizpena eta merkaturatzearen aldeko estrategiak (2 punturaino).
- 6. Eremu geografikoarekin zerikusia duten alderdiak (8 punturaino)**
 - 6.1. GGI (Giza Garapenaren indizea) 0,470tik behera (8 puntu).
 - 6.2. GGI 0,471 eta 0,520 artean (6 puntu).
 - 6.3. GGI 0,521 eta 0,550 artean (5 puntu).
 - 6.4. GGI 0,551 eta 0,585 artean (4 puntu).
 - 6.5. GGI 0,586 eta 0,614 artean (3 puntu).
 - 6.6. GGI 0,615 eta 0,651 artean (2 puntu).
 - 6.7. GGI 0,652 eta 0,699 artean (1 puntu).
- 7. Ezarpena Getxoko udaletik (13 punturaino)**
 - 7.1. Getxoko herritarren tokiko inplikazioa proiektuan (1 punturaino).
 - 7.2. Getxon egindako sentsibilizazio ekintzak (4 punturaino).
 - 7.3. Erakundearen egoitza Getxoko udalerrian (4 punturaino).
 - 7.4. Getxoko Garapen Lankidetzarako Lan Taldearen kidea izateagatik (4 punturaino).

6.2. Aurrekontu ahalmena ez denean nahikoa puntuaketa berdina atera dituzten proiektu ezberdinak dirulaguntzeko, ezartzeko zeintzuk izango diren dirulaguntza jasoko dutenak, jarraian aipatzen diren atalak aztertuko dira bata bestearen atzetik eta orden hau jarraituz:

- a) Kalitate teknikoa.
- b) Inplikaturako alderdien gaitasuna.
- c) Aurrekontua.
- d) Egitasmoaren gizarte helburuak.
- e) Ezarpena Getxoko udaletik.
- f) Eremu geografikoarekin zerikusia duten alderdiak.

6.3. I titulura atxikitutako kreditua ez bada bere osotasunean agortzen, soberakinak II titulura bideratuko dira.

7. artikulua.—Dirulaguntzaren zenbatekoa

7.1. Titulu honetako dirulaguntzak gutxienez **7.500** eurokoak izango dira, eta **30.000** eurokoak gehienez banakako erakundeentzat, eta **46.000** eurokoak gehienez partzuergoentzat.

7.2. Hautatutako egitasmoei emandako dirulaguntzak, oro har, eskatutakoaren %100 izango dira. Kasu berezietan, Getxoko udalak eskatutakoa baino gutxiago ere eman lezake, proposatutako gastuak aztertuta eta ganorazko arrazoiengatik, betiere horrek jardueraren bideragarritasuna kolokan jartzen ez badu.

7.3. Onartu beharreko dirulaguntzak gutxitu ahalko dira, portzentaje berdinean denak, hautatutako egitasmoen artean partzialki asetzeko modurik baino ez legokeen besteren bat sartu ahal izateko.

7.4. Araudi honek onartutako dirulaguntzak beste erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako edozeinekin bateragarriak izango dira baina gain-finantzaketarik inola ere izan barik, hots, denen artean emandakoa jardueraren gutzirako kostea baino gehiago izan barik.

8. artikulua.—Diruz lagundutako ekintzen jarraipena

8.1. Proiektua burutu eta gero, azken txostena aurkeztu beharko da, non egindako ekintzak eta gertaera ekonomikoak azaldu behar diren (azken txostena egiteko eredu txostena bete beharko da).

8.2. Diruz lagundutako ekintzak Getxoko Udalean egin eta justifikatu beharko dira, justifikazio-kontuaren bidez. Diru-laguntza ematen duen organoak, laginketa-tekniken bidez, egokitzat jotzen dituen egiaztagiria egiaztatuko ditu, dirulaguntzaren aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortu ahal izateko; horretarako, hautatutako gastu-egiaztagiria bidaltzeko eskatu ahal izango dio onuradunari. Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

- a) Garatutako jardueraren memoria xehatua.
- b) Egindako jardueraren gastuen eta inbertsioen sailkapena, dokumentua eta hartzekoduna identifikatuz, kopurua, fakturaren data eta ordainketa.

- c) Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak, aurreko lerrokan aipatzen den zerrendan sartuta daudenak, eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duten agiriak.
- d) Beste diru sarreraren edo diru-laguntzen zehetasuna, beraien jatorria eta zenbatekoa zehaztuta.
- e) Bere kasuan, ez diren gastatu soberakinen itzultzea egin beharko beraietatik eratorritako interesak kontuan hartuta.
- f) Diruz lagundutako jarduera tarteko editatu edo argitaratu diren eskuorri, kartel, liburu, bideo, CD-ROM, eta abarren ale bana.
- g) Justifikazioak aurkezteko gehienez 3 hilabeteko epea izango du, sustatutako jarduera bukatzen denetik zenbatzen hasita.
- h) Memoriarekin batera bideoa ere aurkeztu beharko da (esteka web: Youtube, Vimeo edo antzeko plataformetan), iraupena mintu bat eta bi mintu tartekoa izango da eta balio behar izango du egindako esku-hartzearen aurkezpenarako. Bideoa edozein gailu elektronikoarekin egin ahal izango da: telefonoa, kamera... Bideoa horizontalean grabatuko da eta Udalaren logoa izan beharko du.

8.3. Diruz lagundutako erakundeak Getxoko udalaren baimena beharko du ekintzaren burutzapena hasieran aurreikusitakoaren aldean nabarmen aldarazi nahi badu. Nabarmen aldarazteak esan nahi du aurrekontuaren partida bakoitzerako onetsitakoa baino %20tik gorako aldaketa egitea. Onartuko da arrazoiak egitasmoa beste toki batean kokatzea edo onuradun izango diren pertsona edo taldeak aldatzea izatea.

8.4. Zuriketak Administrazio Bulego Elektronikoaren bitartez egin beharko dira: www.getxo.eus

8.5. Diru-laguntza nazioarteko erakunde bati ematen zaionean, dagokion deialdian ezartzen diren agirien bidez justifikatu ahal izango da, mota horretako erakundeek justifikaziorako erabiltzen dituzten sistemak eta protokoloak kontuan hartuta. Proiektuan egindako gastuen zerrenda jasoko da, langile arduradunek edo antzekoek sinatuta.

II. TITULUA

EKINTZA HUMANITARIOAK

9. artikulua. – Xedea

Titulu honen xedea OCDEeko CADeko Laguntza Hartzaileen Zerrendan dauden herrialdeetako komunitateetan larrialdi edota laguntza humanitarioko laguntzak arautzea da.

10. artikulua. – Erakunde eskatzaileak

Bigarren artikuluan aipatzen direnak.

11. artikulua – Diruz lagun daitezkeen egitasmoak

Diru-laguntzeko proiektuak edo ekintzak honako hauek izango dira:

A) Atala

11.1. Ekintza Humanitaria: egitasmoak gerra auzi edota hondamendien ondoriozko egoerak arindu nahi dituztenak; edota, gatazka testuinguruan biktimen babesa eta baraien oinarritzko eskubideen defentsa Giza Eskubideen babesen bitartez (advocacy), testigantza, salaketa, eta presio politikoa (lobby).

11.2. Larrialdirako laguntzak: berehala burutu beharreko ekintzak eta proiektuak giza bizitzak salbatzeko.

B) Atala

11.3. Umeen Harrerak: umeei harrera egiteko proiektuak dira, bere inguruan ematen diren berezko baldintzak direla eta, komenigarria da beraien osasuna hobetzeko Getxoko familien harrera izatea.

12. artikulua —Egitasmoen baldintzak

12.1. Aurkezten diren egitasmoek baldintza hauek beteko dituzte:

- a) Ez izatea irabazi asmorik.
- b) Tokiko bazkide baten bidez egitea. Tokiko bazkide hori nortasun juridikoa duen erakundea izango da, irabazi asmorik gabe, behar bezala eratu eta dagokion erregistroan formalki inskribatutakoa. Tokiko bazkidea erakunde bakarra izan daiteke, edo erakunde bi edo gehiago batuta daudenean. Kasu horretan, multzoko erakunde bakoitzak aurreko lerroaldeko baldintzak beteko ditu.
- c) Ez inor baztertzea arraza, sexu, erlijio edo iritzi arrazoiak tarteko.
- d) Burutzapenean ahal dela egitasmoa gauzatuko den inguruko enpresek edo tokiko erakundeek parte hartzea.
- e) Erabilitako baliabideen, egingo diren ekintzen eta iritsiko diren emaitzen arteko zentzuzko lotura azaltzea.
- f) Egitasmoaren aurrekontu xehatua eta egingo diren gastuen programaketa sartzea.
- g) Ekintza berriak finantzaketarako izatea, hau da, jasotzen den dirulaguntza ez dela inola ere jada amaitutako ekintzak finantzatzera xedatuko.

- h) Dirulaguntza erakunde eskatzaileari ematen zaion datatik gehienez hurrengo hiru hilabeteetan hastea.
- i) Proposatutako jarduketak gehienez hamabi hilabeteko epean burutuko dira

12.2. Adingabeen harreraren kasuan, diru-laguntza lortzen dituzten elkarteek udalak antolatzen duen erakunde ekintzan parte hartu beharko dute. Arrazoitu gabeko arrazoigatik ez badira bertarutzen, udalak itzularazte edo zehapen prozedura izapidetu ahalko du

12.3. Eskatzaileek zehaztu beharko dute ea deialdira aurkezten dituzten ekintzek beste erakunderen baten dirulaguntzarik jaso duten edo eskatu duten, eta hala bada zerrenda aurkeztuko dute, zenbatekoak eta xedea adierazita.

13. artikulua –Diruz lagun daitezkeen gastuak

13.1. Gehienez 12 hilabeteko epea kontsumituko diren ondasun agorgarriak erosteko ekintzak diruz lagunduko dira. Zehazki, ondokoen erosketa eta lekualdaketei lagunduko zaie:

- a) Oinarrizko ondasunen eta zerbitzuen hornidura bermatzea pairatzen ari diren egoera hobetzeko, bestak beste honako hauek izan ahal dira:
 - Aterperako mantak...
 - Edateko ura.
 - Elikagaiak
 - Osasun arreta: botikak, txertoak, higiene eta osasun neurriak.
- b) Familien eta komunitateen ahultasun eta desegituraketa ekonomikoaren hazkunde prozesua gelditzea. Honako helburuak betetzen dituztenak:
 - Ahultasun egoeran dauden diru sarreren eta erosketa gaitasuna hondoratzea gelditzea, elikagai edo dirua lanagatik programen bidez.
 - Larrialdi batengatik kaltetuak direnen deskapilazatzea ekiditea, horretarako laguntza bideratuko da elikagaien, hazien, diruaren, enplegu programen bitartez...
 - Familien exodoa saihestea laguntza bilatzeko beste tokietan.
 - Gaitasunak sortu lagundu ahal dutenak ondorengo garapena berreskuratzeko, populazioari bitarteko teknikoak bideratuz.
- c) Ahultasuna murrizteko epe laburrean hartu ahal diren neurriak ezbehar naturalengatik sortutako kalteak direla medio.
- d) Gerren eta bestelako ezbeharren biktimak babestea, ulertuta babes hori Oinarrizko Giza Eskubideen defentsa bezala, eta Giza Nazioarteko Zuzenbideak dituen betekizunak direla eta.
- e) Udako adingabeen harreretan, bidai gastuen parte bat ordainduko da bidai poltsa kontzeptu bezala eta bakarrik Getxon errolatuta dauden familientzat.

13.2. Ez dira erbesteratutako langileen gastuen aurrekontuak aurkeztuko.

13.3. Zeharkako gastuak ez dira gastu zuzenen %5 baino gehiago izango. Zeharkako gastuetan funtzionamenduarenak eta arestian esandako bost kontzeptuetan sartzen ez den beste edozein sartuko dira.

14. artikulua –Hautapen eta balorazio irizpideak

14.1. Getxoko udalak erabakiko du zein egitasmo onartu, dirulaguntzak emateko ondoko irizpideak kontuan hartuta, **ekintza humanitariorako** (100 punturaino gehienez). Gutxienez 50 puntu ateratzen ez dituzten egitasmoak ez dira diruz lagungarriak izango.

I. Egitasmoaren edukien arabera (60 punturaino)

1. Kalitate teknikoa (50 punturaino)

- 1.1. Garatuko den egitasmoaren eta testuinguruaren gaineko informazioa (10 punturaino)
- 1.2. Justifikazioaren, helburuen eta jardueren arteko koherentzia (10 punturaino)
- 1.3. Adierazleen zehaztapena (5 punturaino)
- 1.4. Egingo den ekintzaren bideragarritasun teknikoa (10 punturaino)
- 1.5. Iraunkortasuna (5 punturaino).
- 1.6. Genero ikuspegiaren txertaketa (5 punturaino).
- 1.7. Finantza bideragarritasuna: kontuen banaketa, proformako fakturen atxikipena (5 punturaino).

2. Eremu geografikoarekin zerikusia duten alderdiak (10 punturaino).

- 2.1. Egitasmoa Saharan, Nikaraguan (Tipitapa) garatzekoa bada (10 puntu)
- 2.2. GGI (Giza Garapenaren indizea) 0,470tik behera (8 puntu).
- 2.3. GGI 0,471 eta 0,520 artean (6 puntu).
- 2.4. GGI 0,521 eta 0,550 artean (5 puntu).
- 2.5. GGI 0,551 eta 0,585 artean (4 puntu).
- 2.6. GGI 0,586 eta 0,614 artean (3 puntu).
- 2.7. GGI 0,615 eta 0,651 artean (2 puntu).
- 2.8. GGI 0,652 eta 0,699 artean (1 puntu).

II. Erakunde eskatzailearekin zerikusia duten alderdiak (40 punturaino).

1. Eskarmentua larrialdietako laguntza humanitarioak kudeatzen (17 punturaino).
2. Gaitasuna eta kaudimena (8 punturaino).
3. Erakunde eskatzailearen eta tokiko erakundearen arteko lotura zuzena (10 punturaino).
4. Getxon egoitza edo delegazioa izatea (5 punturaino).

14.2. Getxoko udalak erabakiko du zein egitasmo onartu, diru-laguntzak emateko ondoko irizpideak kontuan hartuta, **adingabeen harrerarako** (100 punturaino gehienez). Gutxienez 50 puntu ateratzen ez dituzten egitasmoak ez dira diruz lagungarriak izango.

Kalitate teknikoa (50 punturaino)

- 1.1. Garatuko den egitasmoaren eta testuinguruaren gaineko informazioa (10 punturaino)
- 1.2. Justifikazioaren, helburuen eta jardueren arteko koherentzia (10 punturaino)
- 1.3. Adierazleen zehaztapena (5 punturaino)
- 1.4. Egingo den ekintzaren bideragarritasun teknikoa (10 punturaino)
- 1.5. Iraunkortasuna (5 punturaino).
- 1.6. Genero ikuspegiaren txertaketa (5 punturaino).
- 1.7. Finantza bideragarritasuna: kontuen banaketa, proformako fakturen atxikipena (5 punturaino).

Erakunde eskatzailearen zerikusia duen alderdiak (35 punturaino)

2.1. Esperientzia harrerako laguntzak kudeatzen (20 punturaino).

2.2. Erakunde eskatzailearen eta tokiko erakundearen arteko lotura zuzena (10 punturaino).

2.3. Getxon egoitza edo delegazioa izatea (5 punturaino).

14.3. Aurrekontu ahalmena ez denean nahikoa puntuaketa berdina atera dituzten proiektu ezberdinak dirulaguntzeko, ezartzeko zeintzuk izango diren dirulaguntza jasoko dutenak, jarraian aipatzen diren atalak aztertuko dira bata bestearen atzetik eta orden hau jarraituz:

- a) Egitasmoaren edukien arabera.
- b) Erakunde eskatzailearekin zerikusia duten alderdiak.

14.4. II titulura atxikitutako kreditua ez bada bere osotasunean agortzen, soberakinak I titulura bideratu ahal izango dira.

15. artikulua – Dirulaguntzaren zenbatekoa

15.1. Goiburu honetako dirulaguntzak, ondorengoak izango dira:

- A Atalekoak, gehienez 12.600 eurokoak izan ahal izango dira.
- B Atalekoak, gehienez 3.150 eurokoak izan ahal izango dira.

15.2. Hautatutako egitasmoei emandako dirulaguntzak, oro har, eskatutakoaren %100 izango dira. Kasu berezietan, Getxoko udalak eskatutakoa baino gutxiago ere eman lezake, proposatutako gastuak aztertuta eta ganorazko arrazoiengatik, betiere horrek jardueraren bideragarritasuna kolokan jartzen ez badu.

15.3. Onartu beharreko dirulaguntzak gutxitu ahalko dira, portzentaje berdinean denak, hautatutako egitasmoen artean partzialki asetzeko modurik baino ez legokeen besteren bat sartu ahal izateko.

15.4. Araudi honek onartutako dirulaguntzak beste erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako edozeinekin bateragarriak izango dira baina gain-finantzaketarik inola ere izan barik, hots, denen artean emandakoa jardueraren guztirako kostea baino gehiago izan barik.

16. artikulua.—Diruz lagundutako ekintzen jarraipena

16.1. Diruz lagundutako ekintzak Getxoko Udalean egin eta justifikatu beharko dira, justifikazio-kontu sinplifikatu baten bidez. Diru-laguntza ematen duen organoak, laginketa-tekniken bidez, egokitzat jotzen dituen egiaztagiria egiaztatuko ditu, dirulaguntzaren aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortu ahal izateko; horretarako, hautatutako gastu-egiaztagiria bidaltzeko eskatu ahal izango dio onuradunari. Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

- a) Garatutako jardueraren memoria xehatua.
- b) Egindako jardueraren gastuen eta inbertsioen sailkapena, dokumentua eta hartzekoduna identifikatuz, kopurua, fakturaren data eta ordainketa.
- c) Beste diru sarreren edo diru-laguntzen zehetasuna, beraien jatorria eta zenbatekoa zehaztuta.



Getxo

bizi ezazu

Lankidetz
Cooperación



- d) Bere kasuan, ez diren gastatu soberakinen itzultzea egin beharko beraietatik eratorritako interesak kontuan hartuta.
- e) Diruz lagundutako jarduera tarteko editatu edo argitaratu diren esku-orri, kartel, liburu, bideo, CD-ROM, eta abarren ale bana.
- f) Justifikazioak aurkezteko gehienez 3 hilabete izango dira, sustatutako jarduera bukatzen denetik zenbatzen hasita.

16.2. Zuriketak Administrazio Bulego Elektronikoaren bitartez egin beharko dira:
www.getxo.eus

III. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

17. artikulua—Araudi orokorra

Deialdi honetan ezarritako dirulaguntzek bertan xedatutakoari eta dirulaguntza, emateko aginduetan, eta ondorengo araudietan oinarrituko dira:

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39 Legea.
- 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa
- Gardentasunari buruzko 19/2013 Legearen mende daude bai udalak bai 5.000 euro edo hortik gorako laguntza edo diru-laguntzak jasotzen dituzten erakunde pribatuak, azken horien kasuan baldin eta urtebetez 100.000 eurotik gorako laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzen badituzte (2. artikulua) edo urteko diru-sarreraren %40 edo gehiago laguntza edo diru-laguntza publikoetatik badatozkie (3. artikulua). Udalak behartuta daude ematen dituzten diru-laguntzak argitaratzen, eta erakunde pribatuak, jasotzen dituztenak argitaratzen.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, lege horren araudia onartzen duena.
- 794/2010 Errege Dekretua, ekainaren 16koa, nazioarteko lankidetzako diru-laguntzak arautzen duena.
- Getxoko Udalaren diru-laguntzen udal Ordenantza orokorra, 2022ko martxoaren 6an BAO on argitaratua.
- Getxoko Udalaren eta Erakunde Autonomoen Diru-laguntzen Plan Estrategikoa 2020-2023; 2021ko abuztuaren 10ean BAO on argitaratua.

18. artikulua.—Ematearen araubidea

Diru-laguntzak lehiakortasunean ebatziko dira irizpideen balorazioa konparatuz, diru-laguntza emango zaie puntuazio hobea lortzen dutenei ezarrita dagoen kreditu kopurua agortu arte. II (A Atala) Tituluaren kasuan eta aintzat hartuta epea zabalik gelditzen dela 2023ko abenduaren 1era arte, diru-laguntzak emango dira aurrekontu kreditua agortu arte, baldin eta, aurkeztutako proiektua behintzat 50 puntu lortzen baditu, titulu horretan zehazten diren balorazio irizpideak direla eta.

19. artikulua.—Eskarien aurkezpena, dokumentazioa eta epeak

19.1. Deialdi honetara, gehienez proposamen bat aurkeztu ahal izango da titulu bakoitzeko.

19.2. Dekretu honetan jasotako dirulaguntzei heldu nahi dieten erakundeek eskaria orri normalizatuan aurkeztuko dute, bide telematikoa erabiliko dute hura aurkezteko. Eskatzen den dokumentazioaz gain, honako dokumentazio hau ere aurkeztuko da (aurreko deialdietan aurkeztu diren erakundeentzat, data zehatz bati buruzkoak ez diren dokumentuen ordezkariak aldatu ez direlako zinpeko adierazpena aurkeztuko dute)

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

Proiektua dela eta, honako informazioa gehituko da:

- a) Diruz laguntzeko proposatzen den egitasmoa edo jarduera, egin nahi den jarduera bakoitzaren deskribapena, egutegia, ebaluazioaren adierazleak eta aurreikusitako gastuen aurrekontu xehatua gutxienez jasoz.
- b) Proiektuaren inguruko gainontzeko informazio gehigarria.
- c) Bidezkoa bada, dagokion administrazio erregistroko inskripzioaren, egitasmoan parte hartzen duten erakunde edo kolektiboen, laguntza xedatzen den herrialdeko tokiko eragile desberdinen partaidetza konpromisoak edo abalak, eta tokiko bazkidearen itun egitasmoaren ziurtagiriak.
- d) Bidezkoak badira, bideragarritasunaren azterlanak.
- e) Bidezkoak badira, ondasun higiezinaren edo lurzoruen jabetzaren frogagiriak.
- f) Erakundearen elkarteek aurkeztutako eskarien kasuan, araupetzen dituen ituna.

Erakunde eskatzailearen informazioa dela eta, honakoa aurkeztu beharko da:

- a) Erakundearen IFKren fotokopia.
- b) Erakunde eskatzailearen, aurkezten den urtearen aurrekoan izandako diru sarrera eta gastuen balantzea.
- c) Eskatzailea irabazi asmorik gabeko Elkarte edo Fundazioa bada, horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria ere aurkeztuko du edo eta dagokion erregistroan, baita erakundearen estatutuen kopia ere, behar bezala zigilatuta.
- d) Ogasunaren agiria, eskatzaileak bere zerga betebeharrak egunean dauzkala ziurtatzen duena. Ziurtagiria ofiziosz jasoko da, baldin eta elkarte eskatzaileak ez badu kontrakoa adierazten.
- e) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiria, erakundeak harekin dituen betebeharrak egunean dauzkala ziurtatzen duena. Ziurtagiria ofiziosz jasoko da, baldin eta elkarte eskatzaileak ez badu kontrakoa adierazten.
- f) Izaera bereko diru-laguntza edo laguntzen esparruan hasitako inolako itzularazte edo zehapen prozeduratan sartuta ez dagoelako adierazpena.
- g) Eskariaren xede diren ekintzengatik beste edozein laguntza zertan den adieraztea (emanda zein tramitean).

19.3. Getxoko udalak erakunde eskatzaileei aurkeztutako eskaria ondo ebaluatu eta ebazteko beharrezko irizten dion dokumentazio eta informazio osagarriak eskatu ahalko dizkio.

19.4. Eskariak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39 Legea arautzen duenaren arabera Getxoko Administrazio Elektronikoko Bulegoan aurkeztu beharko dira: www.getxo.eus

19.5. Eskariak aurkezteko epea, Bizkaiko Agiri Ofizialean publikatu osteko hurrengo egunean hasiko da.

Eskabidea aurkezteko epea hilabetekoa izango da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunatik hasita; deialdi honetako II. Goiburuan araututako laguntzak ezik, horietarako epea 2023ko abenduaren 1era arte zabalik egongo baita.

20. artikulua.—Eskaria ongitzea eta espedientea artxibatzea

Aurkeztutako eskaria edo erantsitako dokumentazioa osatu barik egongo balira, edo akats ongigarriak balute, eskatzaileari 10 laneguneko epean gehienez ongitzeko aukera emango zaio; epea aginduzko deia jakinarazpenaren biharamunean hasiko da; argituko zaio ongitu ezean eskaria baztertu duela ulertuko dela.

21. artikulua.—*Tramitazioa, ebazpena eta errekurtsioak*

21.1. Berariazko arau hauetan jasotako laguntzak emateko instrukzio organoa Getxoko udalaren Lehendakaritza Arloaren barruan dagoen Lankidetzaren Zerbitzua izango da.

21.2. Ebazpena Tokiko Gobernuaren Batzarrak erabakiko du, hemen beheko organo kolegiatuak proposatuta:

Diru-laguntzak emateko proposamena diru-laguntzak ematen dituen organoari, hots, Tokiko Gobernuaren Batzarrari formulatuko dio ondoko kideek osatutako organo kolegiatuak:

- ❖ LEHENDAKARIA: Alkatea
- ❖ KIDEAK:
 - Azpiegituren, Obren eta Zerbitzuak, Ingurumena, Udal Eraikinak eta Gobernu Irekirako eta Modernizazio zinegotzia.
 - Tokiko Ekonomia Sustapena, Hirigintza-plangintza, Kudeaketa eta Disziplinaren zinegotzia.
 - Ingurumeneko Hiri Zerbitzu eta Ingurumen Kalitatearen zinegotzia.
 - Idazkari nagusia.
 - Kontu-hartzailea nagusia.
 - Diru-laguntzaren xedean teknikari aditua.
- IDAZKARIA:
 - AOT-Letratua.

21.3. Giza Ekintzako diru-laguntzen kasuetan, beraien kopurua 30.000 eurokoa edo gutxiagokoa denean, Alkatetzako Dekretuaren bidez egingo da ebazpena.

21.4. Diru-laguntzen ematearen ebazpenean zer baldintzatan ematen diren zehaztuko da, hala nola, burutzeko zer epe egongo den, zelan eta zer epetan justifikatuko diren ekintzak, zer dokumentazio aurkeztu beharko den, eta abar; orobat, onuradunek deialdi honetan esandakoaren arabera zer betebeharrak izango duten ere zehaztuko da. Kasu bakoitzerako baldintza bereziak ere ezarri ahalko dira, jarduerak edo bestelako ingurumariak zelakoak diren ikusita komenigarri iriztekotan.

21.5. Eskaria ezetsiko da baldin eta erakunde eskatzaileak Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharren ordainketa egunean daukala frogatu ez bada. Era berean, eskaria ezetsiko da baldin eta dagokien partidetan zeuden kredituak agortu badira.

21.6. Eskatutako laguntza ematea onetsi ala ezestea erabakitzen duten ebazpenek administrazioaren bidea agortzen dute, eta ebazpen horien kontra interesatuek ebazpena hartu duen organoaren aurrean berraztertzeko errekurtsioa jarri ahalko du edo, bestela, Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian zuzenean aurkatu ahalko ditu.

21.7. Eskariak ebazteko gehienez sei hilabeteko epea egongo da, eskariak jasotzeko jarritako epea amaitzen denetik, eta ordurako ebazpen espresik ateratzen ez bada ezetsi direla ulertuko da.

21.8. Deialdi honetan araututako laguntzak onartzea eta onuradunei ordaintzea, baldintzatuta geldituko da Getxoko Udalarekin betearazpen bidean zorrik ez edukitzeari.

21.9. Diru-laguntzaren esleipenaren jakinarazpena modu elektronikoan egingo da.

22. artikulua.-Dirulaguntzak ordaintzea

Laguntzak Dekretu honetan finkatutako prozeduraren arabera onartu eta gero, dirulaguntzaren zenbatekoaren %100 ordaintzea tramitatuko da, erakunde onuradunari horretarako inolako bermerik eskatu barik; finantzazio hori ezinbestekoa baita egitasmoa aurrera eramateko.

23. artikulua.—Hitzarmenak tokiko bazkidearekin

23.1. Ematearen gainean ebatzi eta gero, adjudikaziodunak tokiko bazkidearekin (II. goiburuko egitasmoen kasuan ezik), egitasmoa garatzen erantzukizunetan kide izateko hitzarmena sinatuko du; hitzarmen hori Getxoko udalari aurkeztuko zaio, bi hilabeteko epean.

23.2. Hitzarmen horretan, gutxienez, ondokoak jasoko dira:

- a) Alderdiek baietsiko dute laguntzak arautzen dituen Dekretuaren edukia ezagutzen dutela, eta hitz emango dute, espresuki, bertan jasotako eginbeharrak beteko dituztela.
- b) Espresuki adieraziko dute laguntzari esker erositako ondasun higigarri eta higiezin guztiak dirulaguntzaren jomuga diren herritarrentzat izango direla; ezinezkoa bada, tokiko bazkidearentzat izango dira, eta laguntzak emandako erabilpenerako baliatzen segituko direla bermatuko da.
- c) Herrialde bakoitzean bi alderdien artean egitasmoaren burutzapenari buruz sor litezkeen auziak ebazteko mekanismo egokia zein den zehaztuko da.

24. artikulua—Dirulaguntza birdoitzea

Diruz lagundutako jarduerak justifikatzeko epea igaro eta denak egin direna frogatu ez bada, edo egindako ekintzen izatezko kosteak aurrekontuetan jasotakoak baino gutxiago izan badira, dirulaguntzaren zenbatekoa izatez frogatutako kostetara doitu da. Halakoetan, erakunde onuradunak sobera jasotako diru kopuruak itzuli beharko ditu.

25. artikulua—Ez betetzeak

Diru laguntzen erakunde onuradunek deialdi honetan, emateari buruzko ebazpenean edo araudi aplikagarrian ezarritako baldintzaren bat beteko ez balute, Alkatetzaren Dekretuaren bidez eta aurretiaz onuradunari entzunaldia eskainita, indarrrik gabe utziko da onartutako dirulaguntza, eta onuradunak jasotako dirua gehi aplikagarria diren legezko interesak ordaintzera behartuta egongo dira, bidera litezkeen gainerako ekintzen kalterik gabe.

26. artikulua.—Babesa

Erakunde onuradunek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso dutela espresuki agerraraziko dute babestutako jardueren zabalpena, hedapena edo, izatekotan,



Getxo

bizi ezazu

Lankidetz
Cooperación



argitalpena dakarten ekintza guztietan, eta diruz lagundutako jarduerak tarteko ateratzen diren sustapen elementuetan eta kartel, testu edo dokumentuetan EAEko bi hizkuntza ofizialetan aterako dira.

Publizitatearen kudeaketa errazteko laguntza eskatu ahal izango zaio Getxoko Udalari derrigorrezkoa den loga txertatu ahal izateko.

Publizitatearen inguruko betebeharra ez bada ematen, emandako diru-laguntzaren %15eko diru itzultzea eskatu ahal izango da.